

Astelehena, 2013/03/18

Kronika.net

Argazkiak

Elkarriketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Egin Bazkide

**AURREKO
EDIZIOAK**

Aukeratu nahi duzun data

2013

martxoa

17

BILATU

Kronika Zaharrak

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



KRONIKA.NET



‘TOLAREA’ GIPUZKOAKO SAGARDOAREN KOFRADIAREN XVIII.

Sagardoa salbu da hiru kofrade berriekin

Kupelaren bueltan egin zuten zin Santa Kruz, Unda eta Aizegak. Gainontzeko kofradietako lagunek ez zuten hutsik egin urteroko zitara.

2013/03/18 - Astelehena

bakoitza bere arloan, borrokalariak hiruak; hala aurkeztu zituzten atzo Pedro Santa Kruz, Maider Unda eta Joxe Mari Aizega kofrade berriak. Sagardoaren mundua betidanik ezagutzen dute, eta izandako lotura eta egindako lana omentzeko asmotan, Kofrade izendatu zituzten atzo. Zin egin zuten hiruek, aurrerantzean lan egingo dutela sagardoaren alde, euren defentsa izango duela hain preziatua den produktu honek.

Esker hitzak, hiruek

Joxe Mari Aizegak barru barrutik eskertu zuen izendapena: «opari hunkigarria da, hernaniar bezala, izugarria, nere bizitza hemen sortua da. Sagardoa defendatzen jarraituko dut, gure ondare gastronomikoa da». Pedro Santa Kruzek ere esker hitzak izan zituen: «Eskerrik asko guztiei. Sagardo ederra edan nahi baduzue, eta nirekin une atsegin pasatu, badakizue, Larre Gainera gerturatu». Undak eguneroko bizitzan sagardoaren alde egingo zuela esan zuen: «eskerrik asko benetan. Nire bizitza naturala da, eta bide horretan aurrera egiten saiatzen naiz». Egun borobila, euria egin arren Hamaiketako eta kale bueltarekin hasi zuten eguna kofrade berriekin eta gainerako herrietatik etorritako kofradiekin. Taldeko argazkia atera, eta Biteri barrura sartu ziren, ekitaldi nagusira. Agur jaunak abestiarekin hasi zuten ekitaldia, eta ondoren, kofrade berri bakoitzaren ibilbidea gogoratu zuten. Domina eta diploma jaso, eta kupelaren bueltan, sagardoaren alde egin zuten zin Santa Kruz, Unda eta Aizegak. Agurtzeko, hiru abestiz gain, bertso bana abestu zuten Kantuz abesbatzak.



Zabaldu!

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali

BILATZAILEA

Idatzi bilaketa hitza(k)

BILATU

GAURKO KRONIKA




ARGAZKIAK



IKUSI



**Liburua
erosteko,
klik hemen**





[web](#) [mapa](#) | [kontaktua](#)

THEMOVIE S.L.-k garatua, 2005

Ibilbide Sarea:
Sagardotegiak

2013ko Martxoak 8
- Udal Adierazpena

Parot doktrinari
buruzko mozioa

Saharako herriari
buruzko mozioa

Udal Baratzen
araudi orokorra

Gehigarria: Hemen
da Hernaniko
sagardo berria!

Saskien zozketa -
IRABAZLEAK

Gehigarria:
Gabonak

GEHIGARRIA: GORA
EZKONBERRIAK!

GEHIGARRIA:
AUKERA UGARI
HERNANIN, ETXEA
JANZTEKO -
SAGASTIYA

GEHIGARRIA:
OPORRETARAKO
PREST AL
DAUKAZU
IBILGAILUA?

GEHIGARRIA:
ERRUGBIA 1GO
MAILARA

GEHIGARRIA:
ZAINDU PAUSOZ
PAUSO



BESTE
HEDABIDEAK
TOKIKOM

NOAUA! ASTEKARIA:
Martxoaren 22an azken
NOAUA!, gero bi astez
aldizkaririk ez

NOAUA! ASTEKARIA:
Jubilatu Asteko
bazkarirako, izen emateko
azken eguna gaur